

7

Mikel Zalbideren *Teoriatik tiraka.* *Diglosiaren purgatorioaz* izeneko ponentziari emandako erantzuna

Iñaki Martínez de Luna

EHUko irakaslea

i.martinezdeluna@euskalnet.net

Sarrera-data: 2011-06-27 | Onartze-data: 2011-07-30

Laburpena. Iñaki Martínez de Lunak bere iruzkin-artikuluaren saio honen bi ezaugarri aipatzen ditu: “gure izaera kulturala tarteko, intrantsigentziatik ateratzeko nahia, eta eredu akademikoetan eztabaidarako sumatzen d[u]en gabezia neurri batean behintzat arintzeko ahalegina”. Aitortza bikoitz hori egin ondoren eta, adostasun terminologikoaren egokitasuna gutxietsi gabe, egileak hori lortzeko zailtasun handiegia ez ote dagoen planteatzen du. Baita diglosia terminoaren erabilera “okerrak” zuzentzeko ahaleginetan ere. • **Hitz-gakoak:** *diglosia, terminologia, polisemia, hizkuntza gutxituen diglosia.*

Abstract. Considering Mikel Zalbide’s Theory. Reply to the paper on the purgatory of diglossia. In his critique Iñaki Martínez de Luna refers to two features in this essay: “bearing in mind our cultural nature, the wish to get away from intransigence, and the effort to reduce, to a certain extent at least, that gap that is perceived in the debate on academic models”. After making this dual admission and without scorning the appropriateness of terminological agreement, the author wonders whether the difficulty in achieving this could be too great, as would the efforts to correct the “wrong” uses of the term diglossia. • **Key Words:** *diglossia, terminology, polysemy, diglossia of minoritized languages.*

Bost puntutan jasoko dut Mikel Zalbideren hitzaldi mamitsuari emango diodan erantzuna. Aurretik aitortu behar dut jorratu beharreko gaien jantzita dagoen pertsona baten lanari erantzun behar izatea ariketa interesgarria, ausarta eta, aldi berean, *arriskutsua* badela, aurrerago azalduko den bezala.

Saio mota hau interesgarria dela diogu, gutxienez bi arrazoiengatik: bata, aztergaiak berak pizten duen jakin-minagatik; bestea, formatu honek dituen zenbait bertuterengatik. Azken arrazoi horri -formatuaren bertuteari- ekingo diogu lehendabizi, ondoren gaiaren inguruko hainbat ideiari lerro gehienak eskaintzeko.

LEHENENGO PUNTUA: SAIO HONEN BERTUTEZ

I

Formatuaren erakargarritasuna bi oinarri ditu, gutxienez: gure-gurea dugun izaera kulturalaren ezaugarri bat eta mundu akademikoak —salbuespenak albuespen— soziolinguistikaren premiei entzungor egitea. Hona hemen biak argiago azalduka:

A. *Gure izaera kulturala dela-eta, burugogorkeria eta intrantsigentzia kulturaletik ateratzeko ahalegin xumea da saio hau.*

Saioa *arriskutsua* gerta dakigukeela esan dugu lehenago, kulturalki urruti gelditzen zaigun ariketa bikoitza burutzea dakarrelako: alegia, kritika guk zintzoki egitea eta hizlariak gogo onez entzutea.

Kezka beraren ildotik, 2009an horrela idazten genuen Argian (2168. alean): “Kulturalki ezinezkoa zaigu, gaur egun, besteen iritziei *patxadaz erreparatzea*, gure planteamenduen aurkakoak direnean, bereziki. Hala politikan nola egoera edo bilgune sozial eta herritar gehien-gehienetan, kontrako iritzia entzun ahala piztu egiten gara eta, besterik gabe, uko egiten diegu. Ez diegu pentsatu bakar bat ere ematen ea nolabaiteko ekarpenik egiten ote diguten ikusteko”.

Gure azalpen edo planteamenduari egindako kritiketan arrazoi puntu bat egon daitekeela batere pentsatu gabe, kritika horren egilea segituan deskalifikatu ohi dugu. Hortaz, ariketa hori eraso pertsonal bezala hartzeak ondorio txarrak ekar litzake, saiotxo honetan ere: lagun dugun hizlaria aurrerantzean etsai bihurtzea. Hori horrela, *arriskutsua* litzateke, adiskide baten lana jendaurrean kritikatzeko adiskidetasuna amildegiaren ertzean jar lezake-eta. Ez da hori, Zalbideren kasua izango, bere gizatasun zabala ongi ezagutzen baitugu, baina gure eremu kulturean erraz aurki liteke kontrakoaren adibide ugari.

Horrengatik, hain zuzen, saio hau ekarpen xume bat izan daiteke zurruntasun kultural hori beratzen, biguntzen eta iraultzen has

Gure izaera kulturala dela-eta, burugogorkeria eta intrantsigentzia kulturaletik ateratzeko ahalegin xumea da saio hau.

Saio hau ekarpen xume bat izan daiteke zurruntasun kultural hori beratzen, biguntzen eta iraultzen has gaitzen; alegia, ohituta ez gauden joko-arau berrietara egokitzerantz lehenbiziko pausoak eman ditzagun.

**Eremu
akademikoetan
dagoen gabezia
konpontzeko
ahalegintxo.**

**Euskal gizarteak
dituen kezka eta
premia horien
inguruko
unibertsitatearen
erantzun falta
hori agerian
jartzera eta,
maila ñimiñoan
bada ere,
betetzera dator
saio hau.**

tezen; alegia, ohituta ez gauden joko-arau berrietara egokitzerantz lehenbiziko pausoak eman ditzagun¹.

B. Eremu akademikoetan dagoen gabezia konpontzeko ahalegintxo.

Euskal Herriko eremu akademikoek euskararen *corpusean* lan eskergea egin duten arren, hizkuntzaren *statusa* ez dute neurri eta adore berdintsuekin jorratu; ezta hurrik eman ere. Hutsune hori nabarmenagoa da euskalgintza –herrigintzaren eskutik sortutakoa zein instituzionala– euskara biziberritze aldera aspalditik egiten ari den ahalegin teoriko eta, batez ere, garapen aplikatuei erreparatuz gero.

Euskal gizarteak dituen kezka eta premia horien inguruko unibertsitatearen erantzun falta hori agerian jartzera eta, maila ñimiñoan bada ere, betetzera dator saio hau.

BIGARREN PUNTUA: AHALEGINAREN BIDERAGARRITASUNAZ

I

Zera dio bere idazlanean Zalbidek: “Adostasun terminologikoak ez dizkigu arazo guztiak konponduko: ez guztiak eta ez, seguruenik, larrienak. Arazo batzuk konponduko bagenitu, halere, bagenuke zerbait irabazia”.

Nork egingo dio muzin adostasuna bilatzeko asmo bati, adostasun terminoak hain esanahi positibokoa izanik! Baina adostasunera iristea posible ote? Izan ere, desadostasunezko terminoak edo termino polise-mikoak ohikoak dira gizarte zientzietan, eta soziolinguistika ez da salbuespena.

Soziolinguistika kontzeptutik bertatik hasita ere, termino horren adiera bat baino gehiagorekin egiten dugu topo. Horrela, Fishmanek soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia baliokidetzat jotzen baditu ere, beste egile asko uste ezberdinekoak dira: soziolinguistikaren langaiak askoz zabalagoa direla diote, diziplina bakar baten eremuan sartzen direnak baino. Hots, diziplinartekotasunetik landu beharreko gaiak dira soziolinguistikaren baitakoak, askoren iritsiz, ez soilik soziologiatik.

Ez da kasualitatea izango giza eta gizarte zientzietan hainbat kontzepturen adiera anitz gertatzea. Arrazoiaren bat egongo da eta, seguru asko, ez da intentzio maltzuraren edo arduragabekeriaren ondorio hutsa izango. Gauzak horrela, posible ote zaigu jatorrizko kontzeptu baten geroko garapenei murrizketak jartzen saiatzea? Hau da, zentzuduna da gerora sortu diren diglosiaren beste adiera batzuk zuzentzen, *saihesten* edo *birbideratzen* saiatzea?

Soziolinguistikak zein beste kontzeptu askok adiera bat baino gehiago badute, zergatik ez diglosiak berak ere?

HIRUGARREN PUNTUA: AHALEGINAREN PRAKTIKOTASUNAZ

I

Zalantza praktikoak ere badituz, hasierako diglosia aldarrikatzeko eta oraingo erabilerak baztertzeko saiakeraz.

a) Horrela diosku Zalbidek bere testuan: “Diglosia hitzaren adiera popularrak erabateko indarra eta tiradizoa du Euskal Herrian”. (...) “Ahuldutako hizkuntzaren osasun-egoera axal-axaletik deskribatzeko eta egoera hori arras negatiboki baloratzeko erabiltzen da diglosia...” (...) “Adiera popularren indar hori ez da hemengoa bakarrik: beste hainbat hiztun-elkartetan ere (motibo jakinengatik, ez kasualitate itsuz) agerikoa (izan) da”.

Egia da erabilera horren adibideak ugariak direla gure artean. Hona hemen horietako bat, herri minorizatueta eskola-umeen artean ezberdintasunaren kontzientzia jorratzearen garrantziaz ohartarazteko Joxe Manuel Odriozolak idatzi duen pasartea baliatuta: “Identitate-lehian ikaragarritzko asimetria dagoenez, hizkuntzen arteko aldeak eta xehetasunak zehatz-mehatz azaltzen ez bazaizkio umeari, ideia okerrekin mende hartuko dute hura. Alegia, [Ameriketako] maia hizkuntzen egoera diglosikoan dago horrelako pedagogia baten premian”².

Hemendik kanpo ere oso hedatua den diglosiaren *esanahi ideologiko* hori arbuia gero, gurea bezalako egoera duten hizkuntzekiko distantzia terminologikoa alferri jarriko genuke, beste lekuetan erabilera hori eutsiko liokete-eta.

Hala ere, Zalbide ez da kontzeptuaren inguruko adostasuna biltzen saiatzen den bakarra, berak dioenez: “Egoera hori izanik, merezi al du adostasun-lanketan saiatzea? Baietz uste dut. Iritzi horretan ez naiz bakarra. Hemendik kanpora ere benetako arazoa dago kontu horrekin, eta bada argitze-lan horri kalte baino mesede gehiago ikusten dionik. (...) Bere hitzak labur bilduz: ez dago teoria on bat baino gauza praktikoagorik, lehenengoz Kaplanek esana izan behar duen moduan; mintzajardunaren giza arteko moldaera-kontuen ezagutza bere onera ekartzen lagun dezake kontzeptu sendo eta argi batek, egungo konfusio-giroa gaindituz. Itxuraz zeharo diferenteak diren eta nondik heldu ez dagoen fenomenoak eskuragarri eta erabilgarri bihurtzeko”.

Ados teoriaren onuraz, noski, baina teoria egoki bakarra ote da kontzeptu baten lehenbiziko adieran oinarritzen dena? Termino horien gero bertsioek ezin dute teoriarik –teoria egokirik– osatu?

b) Zergatik ez erabili diglosia -izenondo egoki batez lagunduta, beharbada- gure egoera soziolinguistikoa izendatzeko, egoera hori ele-

**Diziplinartekotas
unetik landu
beharreko gaiak
dira
soziolinguistikar
en baitakoak,
askoren iritsiz, ez
soilik
soziologiatik.**

**Soziolinguistikak
zein beste
kontzeptu askok
adiera bat baino
gehiago badute,
zergatik ez
diglosiak berak
ere?**

**Zergatik ez
erabili diglosia
izenondo egoki
batez lagunduta,
beharbada gure
egoera
soziolinguistikoa
izendatzeko,
egoera hori
elebitasun
desorekatu gisa
ulertzen
dugunean?**

bitasun desorekatu gisa ulertzen dugunean? Zergatik ez onartu diglosiaren esandako adiera hori, hori bera bada hizkuntza gutxituen egoeraz hitz egiteko jendartean zabaltzeko dena? Kontzeptuaren ikuspegi akademikoa ikuspegi herritarra baino balio handiagokoa ote?

Gainera diglosiaren adiera hori baztertu eta terminoaren hasierako adierara murriztuz gero, hizkuntza gutxituen egungo egoera soziolinguistikoa deskribatzeko beste termino bat asmatu beharko da? Gure egoera soziolinguistikoa hitz egin ahal izateko diglosiaren jatorrizko esanahi teorikotik kanpo aritu beharko bagenu, beste termino berri bat asmatu beharko genuke euskararen kasurako?

c) Are gehiago, hizkuntzen -hizkuntza guztien?- lexiko zati baten gaurko esanahia kasu askotan nabarmen aldentu da jatorrizko esanahitik, kontzeptu horiek herritarrek, jasoak edo zientifikoa izan. Zergatik errefusatu, beraz, hain hedatuta dagoen diglosiaren oraingo adiera berri hori? Noren eta zeren izenean saiatu beharko genuke *orden berri bat* ezartzen semantikaren legeetan?

d) Ahaleginaren praktikotasunaz badugu azken galdera bat: egungo adierak gure artetik ezabatzeko ahaleginek arrakastatsuak izateko aukerarik ba ote dute ala esfortzu horiek ezerezean gelditzeko probabilitateak handiagoak dira? Noren eta zeren indarra baliatu beharko genuke *orden berri bat* ezartzen arrakastatsuak izateko?

LAUGARREN PUNTUA: AHALEGINAREN ARRISKUAZ

I

Gure jarrera kritikoa muturreraino eramanda, diglosia kontzeptuaren adieraz Zalbidetik egiten duen proposamenak duen arriskuaz ohartarazi nahiko genuke. Izan ere, gure hizkuntzak bizirauteko dituen oztopo eta zailtasunei erreparatuta, termino baten eztabaidan tematzeak zalantza potolo pare bat pizten digu:

1) Ez ditu euskarak beste lehentasun batzuk? Baiezkotan nago; gure hizkuntzaren egungo egoera hobetu eta etorkizun oparoa bermatzeko badaudela premia handiagoko zereginak. Ez litzateke emankorragoa izango euskararen premia larriei erantzuten saiatzea, eztabaida bizantinoen labirintoan galtzea baino?

2) Formalismoan edo nominalismo kontzeptualean edota diletantismo antzuan erortzeko arriskurik ez ote dago ahalegin horietan luzatuz gero?

(Mikel, mesedez, ez esan une honetan nitaz pentsatzen ari zarena!)

BOSGARREN ETA AZKEN PUNTUA: BALIZKO ALTERNATIBEZ

I
“Aurrekoetan ez bezala, oraingoan ez dago hain argi mundu zabaleko zein formulazio akademikotan, eta gure arteko zein ikerlanetan, oinarritzen garen baieztapen horiek egiteko. Problema, problemaren zati bat behintzat, terminologiko-kontzeptuala dugu: zer “diglosia”z ari zaigu...?”

Ados gaude kezka horrekin; hortxe dago gakoa, nire ustez: egoera soziolinguistikoa bat hizpide dugunean zer diglosiaz ari garen argitzea. Arazoa ez da, beraz, diglosia bere jatorriko esanahitik zabaldu izana hasierako edukia galtzeraino iritsiz; konpondu beharreko auzia da zer diglosiaz ari garen argi eta garbi esatea.

Gauzak horrela, zehaztasun falta horren konponbiderik egokiena zein den pentsatu beharko dugu eta baliteke, Zalbidek proposatzen duena ez ezik beste aukera batzuk ere egotea; agian, egokiagoak.

Hona bat: diglosia terminoaren polisemia aintzat hartzea, baina ez zehaztasunik gabe orain egiten den bezala. Polisemia ontzat emanaz gero, terminoaren erabilera zehatza bermatzeko aukera pare bat bururatzeko zaizkit:

1) Diglosia terminoa erabiltzen denean, lekuan lekuko eta nork bere premien edo interesen arabera erabilitako adiera mota argi eta garbi azaltzea; adibidez: “egoera diglosikoa aztertuko dugu Ferguson-ek kontzeptu hori erabili zuen moduan; alegia, diglosiatzat hartzen dugu...” edo “Fishman-ek diglosia kontzeptua ulertu zuen bezala erabiliko dugu hemen; hau da, egoera diglosikoa da...” eta antzeko azalpenak baliatuz.

2) Lehenago esan bezala, diglosia izenondo edo termino konposatu egoki batez laguntzea gure egoera soziolinguistikoa izendatzeko; zer moduz, adibidez, honako hau: *Hizkuntza gutxituen diglosia erabiliko bagenu?*

Horrela eginda, *adiera ideologizatu* horrek ere leku zehatza izango luke jakintza soziolinguistikoan.

Eskerrik asko entzuleei, irakurleei eta bereziki Mikel Zalbideri kritika honen gordintasunak agerian uzten duen ausardia lotsagabearen aurrean horren kirol-legezko jarrera erakusteagatik!

(Barkatu, Mikel ! Badakizu, konfiantza dagoenean...) ●

**Egungo adierak
gure artetik
ezabatzeko
ahaleginek
arrakastatsuak
izateko aukerarik
ba ote dute ala
esfortzu horiek
ezerezean
gelditzeko
probabilitateak
handiagoak dira?**

**Ez litzateke
emankorragoa
izango
euskararen
premia larriei
erantzuten
saiatzea,
eztabaida
bizantinoen
labirintoan
galtzea baino?**

OHARRAK

1. Gogo onez aitortu behar dut saioa bukatu ahala entzule bat hurbildu zitzaidala, zera esateko: Europako beste kultura batean hezitakoa izanik, berak ere *eztabaida zibilizatuak* oso faltan dituela euskal kulturari, bere herrian ohituta dagoelako eztabaida sakonak, askotan latz gertatu arren, denek gogo onez onartzeaz. Estimatusa, benetan, egin zidan komentarioa!

2 Odriozola, J. M. (2011). *Estatu etnozidaren kontra*. Donostia. Elkar (54. or.).